

# **HIZTUN ZAHARREN JARRERAK BERTAKO ETA ATZERRIKO HIZTUN BERRIEKIKO**

**Katarzyna Piejko-Martínez  
Euskal Ikasketak  
2016-2017ko ikasturtea  
Zuzendaria: Ibon Manterola**

ETXEKOOI, izandako mugarik gabeko pazientziarengatik;

IBONI, bideratzeagatik;

bidean gurutzatu naizen EUSKALDUNOI, lan horren inspirazio iturria izateagatik,

MILA ESKER

## **Laburpena**

Azken hamarkadotan, euskal hiztunen kopuruak hazkunde nabarmena izan du euskaldun berriei –hiztun berriei– esker. Hainbat aldagai aintzat hartuta, taldearen barruan azpimotak bereiz daitezke. Hiztun zaharrek berdin ikusten al dituzte hiztun berrien mota guztiak baina? Lan honetan, hiztunen jatorria irizpide edukita, hiztun zaharren jarrerak aztertuko dira. Horretarako, lehenik –eta, bidenabar, ikuspegi zabalagoa eskaintze aldera– beste hizkuntza gutxitu batzuen kasuak aztertuko dira. Bigarrenik, gaia aztertzekeo abiapuntua den euskaldun berri / euskaldun zahar dikotomiaren egokitasun eta gaurkotasun falta agerian utziko da. Hirugarrenik, hiztun berrien lehengo eta egungo egoera zein den aztertu, eta hiztun haiekiko hiztun zaharrek dituzten jarrerak aztertuko dira, bi aldeetako ikuspuntua alderatuta. Honaino marko teorikoa. Zati enpirikoak analisi bera egingo du atzerriko hiztun berrien kasuan, hedabideetan haiei egindako elkarrizketetan oinarrituta. Azkenik, konparaziotik atera daitezkeen ondorioak eskainiko dira.

**Hitz-gakoak:** euskal hiztun berriak, atzerriko euskal hiztun berriak, euskaldun berri / euskaldun zahar dikotomia, hiztunen jarrerak

## Aurkibidea

1. Sarrera.....	5
2. Marko teorikoa.....	6
2.1.    Hiztun berriak nazioarteko ikerketetan.....	6
2.1.1. <i>New speaker</i> kontzeptua.....	6
2.1.2.  Adibide zenbait.....	8
2.2.    Euskararen hiztun berriak.....	11
2.2.1.  Hiztunen tradiziozko sailkapena.....	11
2.2.2.  Euskaldun vs. hiztun.....	13
2.2.3.  Hiztun-mota berriak eta egungo sailkapena.....	15
2.2.4.  Hiztun berrien jarrerak aztertze elementuak.....	17
2.2.4.1.  Legitimitatea.....	17
2.2.4.2.  Hizkuntza-identitateak.....	19
2.2.5.  Hiztun zaharren jarrerak.....	21
2.2.6.  Deitura-aldaketa,diskurtso-aldaketa?.....	22
2.2.7.  Eta saririk, bai?.....	23
3. Ikerketa enpirikoa.....	24
3.1.    Helburuak eta corpusa.....	24
3.2.    Emaitzak.....	25
3.2.1.  Hiztun zaharren jarrerak.....	25
3.2.2.  Kanpoko hiztun berrien profila.....	30
4. Ondorioak.....	36
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	38
6. Eranskinak.....	40

## 1. Sarrera

Badira urte batzuk euskara desagertzeaz zegoen garaia atzean geratu dela. Oso larri pasatu ostean, euskaldunon hizkuntzak tunelaren bukaeran argia ikusi eta aurrera egin zuen, ederki aurrera egin ere. Izan ere, azken hamarkadotan hizkuntza politika eraginkorraren ondorioz, 300.000 hitzun berri inguru irabazi ditu euskarak (Saez, 2016) Inoiz baino hitzun gaituen kopuru handiagoa izanagatik, nolana ere, erabilera datuak ez dira batere pozgarriak. Salbuespenak salbuespen, Euskal Herriaren oso eremu zabalean, gaitasuna eta erabileraren artean amildegia dago.

Hamarkadak daramatzagu, bestalde, oso errotua dugun *euskaldun zahar / euskaldun berri* dikotomiarekin. Zalantza izpirik izan gabe badago esatea horrek eragin handia izan duela euskaldun berria edo —hobeto esanda— hiztun berriak ikusteko moduan, eta, horren ondorioz, baita euskararekiko atxikimendu mailan eta erabilera datuetan ere. Aipatu dikotomia zaharkiturik geratu ahala (Ortega eta beste, 2016: 184), batez ere hezkuntza sistemaren bilakaera dela eta, beste hiztun berri mota batzuk agertu dira, euskaldun berri kontzeptuaren betiko esanahia (helduaroan ikasi duena, alegia), atzean utzita (Ortega eta beste, 2016: 169)

Kalera ateratzea besterik ez da falta, bidenabar, Euskal Herrian munduko bazter guztietako gero eta jende gehiago dagoela konturatzeko<sup>1</sup>. Horietako lagun asko euskaldunon mintzairara hurbildu ere hurbiltzen dira, eta mendeetan zehar euskaldunon ahotan baino ez zebilen euskarari kolorea ematen hasiak dira. Nola ikusten dituzte euskaldunek, baina? Mesfidati? Esker on? Gehiago baloratzen al dute haien ahalegina hemengo hiztun berriek egin dutena baino?

Lan honen helburua da, beraz, aztertzea hiztun zaharrek bertako eta atzerriko hiztun berriekiko dituzten jarrerak eta, zehatzago, ea haien artean alderik dagoen ikustea. Horretarako, abiapuntua hiztun berri kontzeptuaren historia eta, batez ere, haren presentzia munduko beste hizkuntza gutxitu batzuetan izango da. Nazioartean aztertu edo aipatuta dagoena ea gurean ere islatzen den frogatuko da. Zati teorikoa, aipatutakoez gain, berriki Ortegak eta bestek (2016) argitaratutako euskal hiztun berriei buruzko azterketan oinarrituko da. Zati enpirikoan, ordea, hedabideetan hiztun berrien

---

<sup>1</sup> Ik. 1. eranskina

eta, batez ere, atzerriko euskal hiztun berrien presentzia eta horren inguruko diskurtsoa aztertuko da egindako elkarrizketak oinarri hartuta. Bibliografía zientifikoan zantzurik aurkitu ezean, bigarren zati horrek kanpoko<sup>2</sup> euskal hiztun berriekiko jarrerak aztertzen lagunduko du. Bide batez, hiztun horien profila deskribatzeko lehen hurbilketa xumea da lan hau.

## 2. Marko teorikoa

### 2.1. Hiztun berriak nazioarteko ikerketetan

#### 2.1.1. *New speaker* kontzeptua

Definizioarekin hasia baino hasteko modu hoberik, ez. Honelaxe definitzen dute *new speaker* terminoa O'Rourke-k eta beste (2015: 1):

Individual with little or no home or community exposure to a minority language but who instead acquire it through immersion or bilingual programmes, revitalization projects or as adult language learners (O'Rourke eta beste, 2015)

Terminoa deituraren bigarren zatia bezain berria da: 2009an lehen aldiz erabilia<sup>3</sup>, galesaren hiztunei erreferentzia egiteko. Galestarren hizkuntzaren adibidea, bidenabar, adierazgarria da oso; izan ere, *new speaker* kontzeptua hizkuntza gutxituei lotzen zaie nahitaez<sup>4</sup>. Hizkuntza horiek, *hizkuntza-ukipenean bizi den lurralde batean gutxienengo batek erabiltzen dituen hizkuntzak* dira (IVAP, 2010: 43). Gutxituak dira, eta, kasu askotan, baita gutxietsiak ere. Alderdi kultural eta politikoen eraginean, horien hiztunak garai zehatz batean, hizkuntzari dagokionez, baztertuta izan ziren. Haien mintzaira bigarren mailakoa izaten hasi zen, eta haren erabilera askotan landa eremuetara mugatu zen. Hiri handietatik urrun, erakargarri izateari utzi, eta ezin zen hizkuntza menderatzailearekin lehiatu (O'Rourke eta beste, 2015: 2)

---

<sup>2</sup> Lan honetan *kanpoko* eta *atzerriko* hitzak sinonimo moduan erabiliak dira

<sup>3</sup> Robert, Elen. 2009. Accommodating new speakers? An attitudinal investigation of L2 speakers of Welsh in south-east Wales. *International Journal of the Sociology of Language* 195. 93–116, In: O'Rourke eta beste, 2015:1

<sup>4</sup> Ama hizkuntza ez den beste bat ikasten duenari, besterik gabe, *non-native* (ez jatorrizko) edo *L2 learner* (bigarren hizkuntza ikasten duena) esan ohi zaio.

Nolanahi ere, *gutxitu* hitzak kantitate eskasari erreferentzia egiten badio ere (horien hiztunei, alegia), hizkuntza gutxituak, berez, munduko hizkuntzen gehiengoa dira: egun, munduan 6000bat hizkuntza eta 193 estatu izanda, mintzaira gehienak herrialde horietako hiztunen gutxiengoak dira erabiliak. Eta horien erdia UNESCOren arabera (2002), galzorian<sup>5</sup>. Ekonomiak laguntzen duenetan, ezagun dira hizkuntza berreskuratu eta biziberritzeko plan eta egitasmoak. Horiek, uste ez bezala, betiko hiztunak bakarrik ez dituzte ardatz, hiztun berriak baizik, askotan hizkuntza bizirauteko berme bakarra izateagatik<sup>6</sup>.

Aipatu bezala, *new speaker* terminoa berri samarra da, eta halakoek osatu gabe izatearen ospea izan ohi dute. Kasu honetan zehaztasun faltaren iturria *native speaker* zer den argi izatea izan daiteke. *Native* hitzak, berez, *bertakoa* eta *jaioterrikoa* nahi du esan. Esanahi literal horrek, agian, erabat baldintzatu zuen mendeetan zehar *native speaker* benetakotasunarekin lotzea; hizkuntzaren eredutzat jo zituzten betidanik (O'Rourke eta beste, 2015: 2)

XIX.mendeko Erromantizismoak, Bucholzek dioenez (2003: 399), are gehiago estutu zuen lotura hura. Izan ere, korrante horren arabera, gizakia ingurune historiko, geografiko eta ideologikoari lotuta zegoen. Aldi berean, garai hartako idazleak, historialariak eta artistak folkloreak erabat liluratuta zeuden; bertakoa eta benetakoa maite zuten. Hiri kaotikoak gorroto, eta kutsatu gabeko herriak hobesten zituzten; bertako hizkuntza biztanleak bezain garbia zela zioten<sup>7</sup>. Horrez gain, benetakotasuna lehenaldiarekin lotzen zuten, eta antzinako garaietan nazioaren nortasuna bilatzen zuten. Beraz, hiztunen benetakotasunak eta jaso duten herentzia geografiko, kultural eta biologikoak osotasun bateraezina osatzen zuten. Ikuspegi honetan, hizkuntza, belaunaldiz belaunaldi modu naturalean transmititzen da, eta ezin da naziorik gabe ulertu. Gurean, mende bat geroago bazen ere, Sabino Aranak bide beretik jo zuen.

Bucholzek ez ditu XIX. mendekoak “errunduntzat” jotzen, baizik eta autokritika egin ere egiten du. Izan ere, soziolinguistika betidanik historia luzea zuten nazio edo

---

<sup>5</sup> [http://portal.unesco.org/es/ev.php-URL\\_ID=1864&URL\\_DO=DO\\_TOPIC&URL\\_SECTION=201.html](http://portal.unesco.org/es/ev.php-URL_ID=1864&URL_DO=DO_TOPIC&URL_SECTION=201.html)

<sup>6</sup> Irlanderak, esate baterako, hiztun berri gehiago ditu zahar baino (In: <http://www.irishtimes.com/opinion/census-shows-we-must-rethink-our-approach-to-irish-and-the-gaeltacht-1.3040392>), baita euskarak ere, gazteen artean, behintzat. (Ik. 2. eranskina)

<sup>7</sup> *Linguistic isolationism* izenez ezaguna den korrantea: hiri handietatik urrun dauden hiztun komunitateek kanpoko eraginik gabeko hizkuntza gordetzen dute (Bucholz, 2003: 408)

hiztunen komunitateak ardatz zituen nostalgian oinarritzen zen, baina nostalgia hori ez da, inondik inora ere, gertatu diren aldaketak eta hiztunen praktika guztiak islatzeko gai. (Bucholz, 2003: 411)

Baliteke, halere, transmisioan etenak egotea, eta jarraitutasun baldintza hori ez betetzea. O'Rourkek eta bestek (2015: 2) Hego Amerikako eta Australiako zenbait hizkuntza aipatzen dituzte, hiztun berriak benetakoak eta bertakoak ere badirela erakusten dutenak. Kolonizazioaren ondorioz, berezkoa galduta, gaztelera zein ingelesa dute hizkuntza nagusi, eta aro modernoan herentzia linguistikoa ari dira berreskuratzen. Hiztun mota bakarrekoak izanik, zaharrak ala berriak? Herentzia kulturala zein biologikoa edukita, benetakoak ala ez? Aipatu fenomenoak gaiaren konplexutasuna baino ez du agerian uzten.

*Native speakers* ikusteko moduak zeharo baldintzatu du *new speakers* "epaitzeko" modua: nazioaren zatia izan gabe, hiztun berriek zaila dute nazio horren hiztun komunitatearen zati izatea. Hizkuntza gutxitua sendo badago, inolako arazorik ez; baina galtzeko arriskuan egonez gero, nahitaez, hiztun berrien beharra dago, horiek "halamoduzkoak" izanik ere. Europako hizkuntza gutxituen biziberritzea aztertzen duten hainbat soziolinguistak (O'Rourkek, Walsh-ek, Costa-k, Jaffe-k, batzuk aipatzearren) azkenotan argitaratutako lanetan berebiziko garrantzia eman diote *new speakers*-en paperari, baina haien lana agertu baino lehen, kontzeptua erabat itzalpean zegoen; deskubritzeke. Begi bistan dago, beraz, alde horretatik ikerketetan hutsune handia dagoela. Bartzelonan, 2013an horren inguruan emandako jardunaldien izenburua begiratzea besterik ez dago: *New Speakers: A Concept under Construction*<sup>8</sup>.

### 2.1.2. Adibide zenbait

Hiztun berrien autopertzepzioari buruzko datuak urriak dira. Deitura dela eta, galizieraren *neofalante*-ek eta bretonieraren *neo-bretonnant*-ek deitura horiek gustuko izan eta gogotsu erabiltzen dituzte, euskaldun berri terminoak duen esanahiarekin. Proventzako hiztun berriek, *neo-locuteurs*-ek, deituran dagoen *neo* aurrizkiarekin okzitaniera haien lehen hizkuntza ez dela baino ez dute adierazi nahi (Costa, 2015: 132).

---

<sup>8</sup> <http://digithum.uoc.edu/articles/abstract/10.7238/d.v0i16.2301/>



Oro har, konfiantza eta segurtasun falta azpimarratzen dute, eta ez dira benetako hiztunak sentitzen (O'Rourke eta beste, 2015: 15). Adibide zehatza ematearren, hona hemen korsikeraren hiztunen kasu berezia. Izan ere, 2012an hizkuntza horren 45 hiztun berri bildu, eta haien pertzeptzioa zein zen adostu zuten. Emaitza honako hau izan zen: askotariko motibazioa eta ikasteko gogoia edukiagatik, lotsatuak sentitzen dira hiztun zaharrek hanka sartzean zuzendu, eta barre egiten dietelako:

Potential new speakers are cast –and cast themselves– as victims both of the collective shame of linguistic (and by extension, cultural) loss and a victims of native speakers' ridicule (or, less dramatically, failure to ratify them as legitimate speakers) (Jaffe, 2015: 38)

Horrez gain, korsikeraz hiztun berriei beti ez egitea leporatzen zaie hiztun zaharrei.

Hiztun zaharrek berriekiko duten pertzeptzioari buruz ez da askoz gehiago idatzi. Sarritan, hiztun horiek gutxiespen-zentzuan erabiltzen dute *new speaker* kontzeptua. O'Rourkek eta bestek irlandera jartzen dute adibide. Itxuraz neutroa den *gaeilgeoir* terminoa (irlanderaren hiztuna) hiztun berriei erreferentzia egiteko baino ez da erabiltzen. Deituraren atzean, nola ez, haiek ikusteko modua ezkututzen da: Irlanda eta Bretaniako hiztun zaharrak oso mesfidatiak dira hiztun berriekiko, eta benekotasuna ukatzen diete. Okzitanieraren kasua muturrekoa da. Okzitanieraren erabiltzaileen artean gatazka sutua dago: betikoek okzitanieraren benekotasuna defendatu, goi-mailako erabiltzaile berriengandik datozen berrikuntza oro artifizialtzat zein kutsagarritzat eduki eta baztertzen dituzte. Horrez gain, gatazka linguistikoak are urrunago ailegatzen dira: baita izaera eta gizarte-mailara ere.

Galegoek, ordea, hizkuntza ikasi berriak eredutzat jotzen dituzte; begirunea diete, galizieraren biziraupenaren giltzarri ikusten dituztelako. *Galego zaharrek* uste dute erabiltzen duten hizkuntza horiena baino jasoago dela ikasia izateagatik. Adinekoek ahoz komunikatzeko baino ez zuten galiziera erabiltzen. Belaunaldi berrikoek, berriz, idazten eta irakurtzen ere badakite. Horrek, bidenabar, erakusten du hiztun zahar eta berrien arteko aldea ez dela bakarrik linguistikoa, baita soziala ere. Arestian esan bezala, hizkuntza gutxituen hiztunak, landa eremuetara baztertuak dira; hiztun berriak, ordea, erdi-mailako hirritarrak dira. Bi taldeek mundua ikusteko duten modua, nahitaez, ezberdina da (O'Rourke eta beste, 2015: 4).

Proventzaren kasuan ohar bera egiten du Costak (2015:143): hiztun zaharrak adinekoak dira nagusiki, herrikoak, kontserbatzaileak eta tradiziozaleak; hiztun berriak, ordeak, hirritarrak dira, erdi-mailakoak eta "arfitizialak" omen.

Ikusi bezala, hiztun zaharren jarrerak, hizkuntza gehien kasuan, zoritxarrez, bat egiten dute. Galiziera da salbuespena, salbuespen eredugarria. Beste zentzu honetan ere bada: hizkuntza menderatzailea (gaztelania alegia) bigarren planora pasatu, eta hizkuntza gutxitua nagusi bihurtu dute. Arrakasta itzel horrek izango al du zerikusitik hiztun zaharren jarrera positiboarekin? Erabateko ziurtasunik, ez, baina hipotesi sendoa dirudi.

Hizkuntza gutxi batzuen kasuan baino ez da hiztun berrien barruko sailkapenik aurkitu. Galizierari dagokionez, irizpidea erabileraren intentsitatea / maiztasuna da. Lau talde aipatu dituzte: (galiziera) nagusi dutenak; egoera oso formal edota informaletan erabiltzen dutenak (lagunartea, lana), noiz behinka erabiltzen dutenak (gaitasun urriagoa dute), eta balizko erabiltzaileak, testuingurua zein den erabiltzen dutenak (O'Rourke eta beste, 2015: 5). Irlandararen kasuan, ez da, berez, sailkapenik egin, baina bai horren zantzua aurkitu da, eta horrek, zalantzarik gabe, berebiziko garrantzia du lan honetarako. Izan ere, egindako elkarrizketan, John Walsh-ek (2013) hiztun berrien artean atzerriko hiztun berriak aipatzen ditu. Haren ustez, talde bereziki interesgarria osatzen dute bi arrazoiengatik: ez dakarte bertakoek bezalako zama kultural-historikorik eta linguistikoki oso irekiak dira:

A few non-Irish nationals have been interviewed for the project, which is in its early stages. "The non-Irish nationals are a very interesting group, because they don't come to the language with the baggage that a lot of Irish people bring to it (Walsh, 2013)

Walsh, halere, ez da lehena izan hiztun berrien artean kanpotarrak bereizi zituena. Jaffek (2015), korsikera aztertu duenak, hizkuntza horren hiztun berrien artean bertakoak eta kanpokoak bereizi zituen. Kanpokoan motibazioa integratzailea da, bertako komunitatean parte hartzeko.

Diskurtso teorikoagoa, hizkuntzen adibiderik eman gabe, Puigdevall-ek (2013) egin zuen. Haren esanetan, arrazoi politiko eta ekonomikoengatik sortutako globalizazio

eta migrazioen garaian, etorkinek berebiziko garrantzia dute hizkuntza gutxitu eta ez gutxituen jarraipenerako:

In many contexts, it is immigration that increases linguistic Diversity as immigrants are incorporated as new speakers of the language of their adopted communities (Puigdevall, 2013:2)

Kanpotarren taldea ez da, jakina, homogenea izango, murgilketaren bidez ikasitako umeak zein heldutan nahita ikasten hasi direnak batzen baititu.

## **2.2. Euskararen hiztun berriak**

Hizkuntza gutxitua izanik, euskarak ere hiztun berriak ditu, gero eta gehiago, gainera (Saez, 2016). Nazioartean bezala, horiek deitzeko moduaren inguruan hainbat argi-ilun dago, baita modu askotako sailkapenak ere. Gaia aztertzen duen oso lan gutxi egonda, zati honetan Ortega eta besteren lanean (*Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*, 2016) oinarrituko naiz gehienbat. Aurkitu dudak lanik onena eta osatuena izateaz gain, gaurkotuena ere bada. Egileek lanaren garrantzia azpimarratzen dute; izan ere, euskararen kasuan garrantzi handikoa da behar bezala aztertzea hiztunen profilak nola aldatu diren, “hizkuntza-politika zehatzak eta ondo bideratuak egin nahi badira” (2016: 17).

### **2.2.1. Hiztunen ohiko sailkapena**

Hamarkadak daramatza gurean euskaldun zahar / euskaldun berri dikotomiak; hortaz, euskal gizartean erabat sustraituta baino ezin egon. Sailkapena bera eta haren egokitasuna aztertzen hasi baino lehen, IVAP-ek plazaraturiko *Soziolinguistikaren Hiztegia* (2010) bi kontzeptuak nola definitzen diren ikustea zaigu komeni:

1. **euskaldun zahar:** lehen hizkuntza euskara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen pertsona;
2. **euskaldun berri:** lehen hizkuntza erdara izanik, euskaraz ondo ulertzen eta hitz egiten duen pertsona.

Hiztegiaren 10. atalean aurkitzen ditugu aipatutakoak, *Hiztunen tipologia* izenekoan, hain justu. Nolanahi ere, ez da bertan agertzen den sailkapen oso ezta bakarra ere. Hizkuntza-bilakaerari dagokiona da, baina beste bi ere badaude. Hona hemen IVAP-ek eskaintzen duen hiztunen tipologia osoa (IVAP, 2010: 58-70), aintzat hartutako irizpidearen arabera:

1. **Hizkuntza-gaitasuna:** elebidun, elebidun hartzaile, erdaldun elebakar
2. **Hizkuntza-bilakaera:** erdaldun zahar, euskaldun berri, euskaldun zahar, guztiz erdaldundu, jatorrizko elebidun, partzialki erdaldundu, partzialki euskaldun berri
3. **Etxeko erabilera:** euskaldun berri aktibo, euskaldun berri bietan aktibo, euskaldun berri pasibo, euskaldun zahar aktibo, euskaldun zahar bietan aktibo, euskaldun zahar pasibo, jatorrizko elebidun aktibo, jatorrizko elebidun bietan aktibo, jatorrizko elebidun pasibo, partzialki erdaldundu aktibo, partzialki erdaldundu bietan aktibo, partzialki erdaldundu pasibo, partzialki euskaldun berri aktibo, partzialki euskaldun berri bietan aktibo, partzialki euskaldun berri pasibo.

Hiztegiileek hiztun mota horien guztien definizioen azpian jarritako oharrean zehaztu dute euskal soziolinguistika eremuan erabiltzeko terminoak direla. 23 horiek seguruenik bai, baina euskaldun zahar eta euskaldun berri gizarteak erabilitako ohiko kontzeptuak dira. Beste ohar bat ere badago hiztegian, proposatutako sailkapena Hego Euskal Herriari dagokio, alegia.

Gizarteak, beraz, euskaldun zahar / euskaldun berri erabiltzen ditu, sarritan erabili ere, baina, inondik inora ere, IVAP-ek modu neutroan azaltzen dituen bezala: terminoek zama semantiko-identitario handia dute. Egungo edozein euskaldunentzat euskaldun zaharra benetako hiztuna da, legitimitate osoa duena, familian ikasitakoa izateagatik eta euskalkian egiteagatik (Ortega eta beste, 2016: 183). Euskaldun berriak, berriz, ez benetakoak ezta legitimoak ere ez diren hiztuntzat jotzen ditu gizarteak. Izaera diskriminatzailea da, hain zuzen, Ortegak eta bestek aipatzen duten ohiko dikotomia zaharkitutik geratzearren arrazoi nagusia. Euskal soziolinguistika aditu guztiak bat datoz hipotesi horrekin, eta bat aipatzearen Coyos-en hitzak ditugu. Zuberoako euskaltzainak

erakundean sartzeko ekitaldian euskaldun zahar / euskaldun berri dikotomia izan zuen hizpide, eta Ortega baino are zuzenago mintzatu zen: deslegitimizazioa baino arrazakeria kutsua ere baduela dikotomiak:

Zentzū batetan izentatze hortan arrazismo mota bat editen ginirio, hitz hori ontsa joaiten ez bada ere. Euskaldün berri erranmoldearen gibelean hierarkia bat leite zombaiten gogoan, ideologia herexa bat pürü. Euskaldün berria egiazko euskaldün ez lizateala, euskaldün ez oso lizateala, euskaraz ez beita ontsa mitnzatzen, bere euskarak haurtaroareki edo herri, güne bateki estekarik ez beiti (Coyos, 2011: 11).

Dikotomia bera zalantzan jartzeaz gain, lehen hizkuntzaren kontzeptua ere zalantzatan jartzen du Coyosek. Izan ere, lehen edota ama-hizkuntza zer den zehaztu beharra dago, gerta baitaiteke lehen mintzaten den hizkuntza eta entzuten den lehena hizkuntza bera ez izatea. Euskara jaiotzetik etxean entzun (baita erdara ere), eta erdaraz hitz egiten hasi dena, nola sailkatu, bada? (Coyos, 2011: 7-8).

Modu askotan ulertutako izaera baztertzaila izateagatik, agerian geratu denez, desegokia da dikotomia, baina hori ez da arrazoi bakarra. Halere, zaharkiturik ez ezik, motz ere geratzen hasi zen hiztunen (zaharren zein berrien) profil berriak ugaltzen hasi baitziren, hiztunen tipologia egungo euskal errealitatea bezain anitza baita.

Are harrigarriagoak suertatzen dira 2015ean argitartatutako *Euskaldun berriak, agur eta ohore* izenburua duen artikuluan agertu ziren hitz hauek:

Euskarak euskaldun berriak behar ditu, **euskaldunok euskaldun berriak behar ditugu**. Hazten eta sendotzen jarraitzeko, **euskarak euskaldun zaharrak bezala euskaldun berriak behar ditu**. Modu bateko eta besteko hiztunak. (Baztarrika, 2015)

Nork eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak esan. Noiz eta Euskararen Egunean. Zertarako eta euskaldun berriei omenaldia egiteko. Dikotomia, oraindik ere, bizirik.

### 2.2.2. Euskaldun vs. hiztun

Betiko dikotomia osatzen duten terminoen ezaugarriak zehaztuta, hori bezain ezinbestekoa da deituren historian (horien ibilbidea, batik bat, idatzizko testigantzetan, alegia) sakontzea. Horretarako onena, hiztegiek zer dioten begiratzea.

Euskaldun berri kontzeptua XX. mende aurreko hiztegietan ez da agertzen. Kontzeptua XX. mendekoa da, eta Kintanaren arabera (1980: 186), 1936. urtea baino lehen erabat ezezaguna zen kontzeptua, eta 1960tik aurrera, hirietan batez ere, gero eta presentzia handiagoa hartzen hasi zen. Nolanahi ere, 2014ko lanean, Kintanak Artetxerekin batera XIX.mendean terminoa erabiltzen hasi zen lehen zantzuak aurkitu zituen (Ortega eta beste, 2016: 165). Sarasolak (2006: 374) zehazten du lehen aipamena 1930. urtekoa izan zela, eta honela definitzen du: "haurtzaroz gero euskaldun dena". Euskaldun zaharra ere bertan agertzen da (haurtzarotik euskalduna dena), baina noiztik erabilia izan zen zehaztu gabe. Halere, suposatzekoa da dikotomiakidea agertu zen garai berekoa dela.

Nolanahi ere, aipatu bi hiztegietan, euskaldun zahar / euskaldun berri lexemaz gain, beste batzuk ere agertzen dira. Sarasolaren lanaren kasuan, euskaldun lexemaren azpisarreraren artean, *euskaldun garbia* ere badago, alegia, erabateko euskalduna. (2006: 374) 1794. urtean, lehendabiziz lekukotua. Bertara jo behar dikotomiaren hastapenen bila? Jakiterik, ez, baina termino hori agertzeak erakusten du, nolabait, garai hartako euskaldunek euskararen gaitasuna neurtu edota zehazten zuen hitza behar zutela. Kintanaren lanean beste bi kontzeptu deigarri ditugu, biak ala biak euskaldun berriaren azpi-motak, nahiz era horren azpisarrera ez izan. Lehenik, *euskaldun-ikasiaz*: ahaleginak egina euskara ikasteko; gaitasun onekoa. Bigarrenik, *arrotz euskaldun*. Nor da? Euskara ikasi duen edozein herrialdetako pertsona. Lan honentzat berebiziko garrantzia du agerraldi horrek, iada 80 hamarkadan atzerriko euskaldun berriak kontuan hartzen zirela erakusten duelako (garai hartan egun baino askoz etorkin gutxiago bazeuden ere).

Gizartean oso sustraituta egonda ere, badirudi azkenotan *euskaldun berri* > *hiztun berri* deituraren aldaketaren lekuko garela. Lan honetan behin baino gehiagotan aipatutako ikerketan (Ortegaren eta besteren lanean) termino berria nahiago izan dute. Zer dela eta? Euskaldun berria terminoak duen zama negatiboa saihestu nahi izan dutelako. Nazioartean gertatutakoak zer esana izan du honetan; izan ere, hiztun natibo eta ez natiboen arteko dikotomia (jatorrizkoa vs kuasihiztuna) gainditu nahian, *new speaker*-ren baliokidea hasi zen erabiltzen (Ortega eta beste, 2016:17), honela definitutakoa: *Euskara familia-transmisioa ez den beste bide batean ikasi duten pertsona guztiak dira* (Ortega eta beste, 2016: 18). Definizioa lanaren hasieran emandako O'Rourke-renaren antzekoa da, eta gizarteak heldutan ikasitako euskaldun berrien

konzeptua askoz gehiago zabaltzen du. Aldi berean, zahartzen hasi den dikotomia erabat ekidin nahian, *euskaldun zahar* terminoaren ordean, *etxeko euskalduna* edo *euskara familiar ikasi duena* terminoak nahiago izan dituzte autoreek.

2016ko edizioan Euskaltzaindiaren hiztegian, *hiztun* hitzak 4 esanahi ditu, eta ordaindik azpisarrerarik, ez. Nork daki, baina, ea hurrengo edizioan ez al den *hiztun berri* azpisarrera agertuko? Agian, Ortégaren eta besteren lanaren ondorioz, kontzeptu zaharraren deitura berriak euskal hiztunon artean arrakasta izango du.

Hiztegiak hiztegi, pentsatzekoa da kalte handia egingo zuela euskaldun berri deiturak edo horren estigmatizazioak. Belaunaldi berrikoek ez dute hura izan nahi (euskaldun baizik); soziolinguistek ez dute erabili nahi, hiztun berria terminoa hobetsita (Ortega eta beste, 2016).

### 2.2.3. Hiztun mota berriak eta egungo sailkapena

Hiztun berrien artean, batez ere, agertu zen lehen haustura. Ortégak eta bestek (2016:180) hiztun berrien honako mota hauek zehazten dituzte:

- **euskaldun berri:** segurtasun falta, “bigarren-mailakoa”, benetakoak ez, legitimizazioa behar; estandarra erabiltzea benetakotasunerako oztopo
- **euskalduna:** tarteko "egoera"; euskaldun berria baina hobea, baina ez zaharra bezain benetakoak; nolana ere, legitimatzailea da.

Harrigarria bezain logikoa da, bestalde, urteak eta euskalduntze-prozesua aurrera joan ahala profil berri hori agertzea, euskalduntze bide berriekin batera. Ikastolan txikitatik murgiltze ereduak ikasi duena ezin da euskaltegian berrogei urte izanda nominalizazioa buruz ikasten duen euskaldun bezain berria izan. Benetakoagoa da hizkuntza naturaltasunez / hitz eginez ikastearren, baina amak errietak erdaraz egiteagatik ezin da Aramaioko bat bezain euskalduna izan.

Euskaldun berri kontzeptua bitan banatzeak aipatutako ezaugarriez gain, adin zehatza izatea ere badakar. Izan ere, Trantsizio garaiarekin batera, murgilketa ereduak

poliki oso hasi zen sartzan euskal hezkuntza sistema. Horren fruituak, egungo 40 urtetik beherako hiztun berriak, euskara haurtzaroan ikasitakoak. Ez da, inondik inora ere, gehiengoak buruan duen euskaldun berriaren prototipoa, alegia, heldutan euskaltegian euskaldundua.

Ortegaren eta besteren ikerlana berriki argitaratutakoa izanik ere, bertan agertu diren kontzeptu eta definizio berriak ez dira azkenotan agertu diren bakarrak. Txerra Rodríguezek arestian sortutako kategorien berri eman du Euskadi Irratiko elkarrizketan (2016). Lau dira: *bidelaria*, *bidelaguna*, *euskaldun 2.0* eta *transeuskalduna*. Lehenengo biak, mintzamina hobetzeko asmoz sortutako egitasmoen fruituak dira (Gasteizko *Mintzalaguna*, Nafarroako *Solaskide*, Bilboko *Berbalagun*, batzuk aipatzearen). *Bidelaria*, euskara ikasi eta hobetu behar duena; *bidelaguna*, horretan laguntzen dion hiztun gaitua. *Euskaldun zahar / euskaldun berri* kontzeptuek ez bezala, egoera batetik bestera saltoa egiteko aukera ahalbidetzen dute. Erabat urruntzen dira, beraz, Coyosen honako baieztapen honengatik: "nahitaez euskaldun berria ez da sekula euskaldun zaharra izanen" (Coyos, 2011: 11). Aurrerapen handia, inondik inora ere. *Euskaldun 2.0*, Maisha MC Barakaldoko musikariarena da, eta Ortegaren *euskaldun* kontzeptuarekin bat egiten du: txikitatik euskararekin harremana izanda ere, ez da behar bestekoa nork bere burua euskaldun zahartzat jotzeko.

Azkenik, *transeuskalduna* dugu. Lutxo Egiaren (2016) terminoa dugu, eta horrela definitzen du: "euskalduna euskaraz dakiena baino erabiltzen duena da"; erabilerak egiten du, beraz, euskaldun. Baieztapen hori hurbil dago, Kramshek aipatu bezala (2012), Widdowsonek (1996) *The ownership of English* izeneko artikuluan esandakotik: *English belongs to whoever has it...*

Halaber, *trans* aurrizkiak errealitatearen beste alderdi bat zehazten du: euskaraz edonon edonoiz edonorekin aritzea utopia denez, euskal hiztunok behartuta gaude etengabe mintzairaz aldatzera, eta hizkuntzen arteko transito amaigabea gaude. Aipatutako terminoak beharbada soziolinguistikaren aldetik ez dira egokienak, baina ukaezina da fenomeno berriak egoki deskribatzen dituztela.



## 2.2.4. Hiztun berrien jarrerak aztertzeke elementuak

Behin baino gehiagotan aipatu izan da euskaldun berri terminoak dakarren deslegitimizazioa. Legitimitatea lortzeko gakoa zein den aztertzea komeni da, zama negatiboa kentzea helburua bada. Horrez gain, hiztun mota berriekin batera agertu izan diren hizkuntza identitateak zeintzuk diren aztertzea ezinbestekoa da.

### 2.2.4.1. Legitimitatea

Hiztun legitimoa izatea, Hymesen esanetan (1961), O'Rourkek eta bestek aipatzen duten bezala (2015) hark sortutako "speech community"-ren (hiztunen komunitatearen, alegia) kidea izatea da. Autoreak bereizketa argia egin zuen: ez da gauza bera hiztunen komunitatean parte hartzea edo haren parte izatea. Doinua ere oztopo erabakigarria izan daiteke hiztunen komunitatearen parte izan ala hartu erabakitzeke orduan.

Bucholz-ek (2003) defendatzen du legitimitatea gizartean gertatzen den legitimizazio-prozesuaren ondorioa dela. Aldi berean, *Authenticity* (benetakotasuna) eta *authentication* (autentifikazioa) bereizi, eta bigarrena hobesten du, fenomeno nolakoa den hobeto islatzeko:

Where authenticity presupposes that identity is primordial, authentication views it as outcome of constantly negotiated social practices. (...). We propose a set of relations, which we call tactics of intersubjectivity, that produce identity-both one's own and other's- through linguistic and other symbolic practices, It is the tactic of authentication that produces authenticity as its effect (Bucholz, 2003: 408)

Ez da, hortaz, nozio itxi eta finkoa. Hiztunak lor dezake, legitimizazio-bideak zeharkatuta.

Kramshe-k (2012), berriz, bestelako gogoeta baliagarria egin zuen. Esaten du lehen benetakotasunak eta legitimitateak zuten lekua eta esanahia egun lausotu egin direla, globalizazioa dela eta. Eleaniztasuna da nagusi gaur egun, eta iada benetakotasuna eta legitimitatea ez dira irizpideak hiztun berriak epaitzeko, egokitasuna, jariora eta egokitzapen kulturala baizik. Hizkuntza batean baino gehiagotan hitz egitea aktoreek jartzen dituzten maskarekin konparatu zituen: maskara jarrita eta rol zehatza hartuta,

egia eta fikzioaren arteko muga ezabatzen da, eta ez dago jakiterik benetan nor den nor. Izan ere, *the language makes you fit into a context*. Horrez gain, orain arte eredu ziren native speakers-en nagusitasuna zalantzatan jartzen du. Hiztun berriak, berez, malguagoak dira eta hobeto egokitzen dira, hizkuntza bat baino gehiago erabiltzean, testuingurua zein den, jarrera ezberdinak hartu behar dituztelako. Ele bi dituen batentzat, ele bakarra duena, beraz, ezin eredu izan. Nolanahi ere, euskararen egungo ikuspegitik, horrelakorik ez, elebakarra den euskal hiztunik kasik ez baitago.

Euskal hiztun berrien gehiengoak ez du bere burua euskaldun zahartzat hartzen, baina argi du jatorrizko hiztunak erreferente direla. Hiztun legitimoa ala ez sentitzeko arrazoiak askotarikoak dira. Zerk, beraz, ez die uzten legitimo / benetakoak sentitzen?

#### **a) Erabilitako aldaera: euskalkia vs. batua**

Ematen du gizarte osoak bien bereizketa argia egiten duela: batua, euskaldun berria; euskalkia, euskaldun zaharra<sup>9</sup>. Ortegak eta bestek esaten dutenez (2016: 154-163), batua denon hizkuntza da, idatzizko hizkuntza gehien bat, esparru eta erregistro formal eta akademikoetan erabilia, batez ere. Inork ez du horren beharra eta balioa zalantzatan jartzen, baina denon hizkuntza izanda, inorena ez da; hortaz, hotza, artifiziala eta anonimoa, inor gutxik nahi duena, benekotasuna falta baitzaio. Euskalkiak, ordea, benetakoak eta aberasgarriak dira, harreman eta testuinguru informalean nahitaez erabili beharrekoak. Herri hizkerak dira, eta benetako aldaera bizitzat hartu ohi dira. Modu benetakoan aritzeak, nahitaez, prestigioa dakar. Horrela mintzatzen direnei euskaldun berriek inbidiaz begiratzen diete, haiek bezala aritzea lortu ezina iruditzen zaielako Nolanahi ere, Ortegak eta bestek bestela interpretatzen dituzte datu horiek: hiztun berriei falta zaiena ez da euskalkia, erregistro informala erabiltzea zein jario onean aritzea baizik (2016: 151-161).

---

<sup>9</sup> Zehaztu beharra dago euskaldun zahar / euskaldun berri dikotomia bezala, baieztapen hori motz geratzen hasi dela. Izan ere, euskalduntze prozesua aurrera joan ahala, guraso biak euskaldun berriak izanik, badago batua ama-hizkuntza duten euskaldun (zahar)ik (Ortega eta beste, 2016: 190)

## b) Gabeziak, edonolakoak izanda ere

Gaitasuna dela (jarioa), erabilera dela (hiztegi informala, haurren hizkuntza, esaterako), hiztun berrien sententzioa beti da bera: zerbait falta zaie. Autokritika maila altua erakusten dute. (Ortega eta beste, 2016: 180-183)

Nolanahi ere, euskaldun zaharrek, berriek miretsiak egonda ere, gazi-gozoak ere badituzte, eta zerbaiten falta sumatzen dute. Adinekoek, gehienbat, egoera politikoak eragindako hizkuntzarekiko mespretxua eta izua (erabiliz gero), eta hizkuntzak ezertarako balio ez izatearen sententzioa dute "bizi osoan bürüko xoko batetan üsüenik egoiten dena" (Coyos, 2011: 9). Gabezia ere sumatzen dute hiztun horiek. Hizkuntza eskolan ikasitakoa ez dutenez, kalitate txarrekoa dela diote.

### 2.2.4.2. Hizkuntza identitateak

Finkoak ez badira ere, gizarteak sortzen ditu hiztun kategoriak, eta hizkuntza identitateak, beraz, hiztunek kategoria horiekin egiten dituzten loturak dira. Ez dira finkoak, gizarteak sortzen dituen bezala, desagerrarazi ere egin baititzake. Euskararen kasua da adibiderik onena, iada aipatutako *euskaldun zahar* eta *euskaldun berri* betiko terminoen gain, *euskaldun*<sup>10</sup> etiketa ere berriki gehitu da hiztunen kategorietara, hiztun mota berriak agertzearen ondorioz (Ortega eta beste, 2016: 164).

Mota berri hori, hain justu, lehen esan bezala, murgilketa eremuan 2-3 urterekin euskaraz hitz egiten hasi zirenak dira. Ikas-prozesua hain goiztiarra izanik ere, ez dute beren burua euskaldun zahartzat hartzen. Nola ikusten dute beren burua orduan? Hainbat modutan:

- 1. euskaldun zaharra, ez:** identitate horrekin ez identifikatzeko arrazoia euskara ama hizkuntza ez izatea da. Familia transmisioaren bidez euskara jaso dutenek bakarrik dute eskubidea etiketa hori edukitzeko. Horrek zein hizkuntzatan pentsatzen duten baldintzatu, eta hizkera naturala izatea bermatzen du. (Ortega eta beste, 2016: 168)

---

<sup>10</sup> Hitzak, berez, *euskal hiztuna* esan nahi badu ere, "euskal herritar" du egun bigarren esanahi (Ortega eta beste, 2016: 165)

2. **euskaldun berria:** kategoria honekin hiztun berrien bi profil identifikatzen dira: helduaroan ikasitakoak, beraz, euskaldun berri kontzeptuaren esanahi errotuena, baina baita murgilketakoak ere. Horretarako ematen dituzten argudioak, honako hauek: gaztelera ama-hizkuntza izatea, gaztelera pentsatzea eta bizitzea; horrez gain, gaitasunean hutsuneak dituzte, zerbait falta zaien sententzia dute. Erabilera aukera eskasak dituztela aipatzen dute, eta askok etsipenez bizi dute egoera hori (Ortega eta beste, 2016: 171).
  
3. **euskaldun berria, ez:** betiko dikotomia gaindituta duten hiztunak eta etiketa axola ez zaizkionak (Ortega eta beste, 2016: 173-175)
  
4. **euskalduna:** euskaldun berriaren hurrengo "egoera", aurrera emandako pausoaren isla; ama-hizkuntzak ez du garrantzirik. Hiztun aktiboak dira, eta maila emozionalean ere bere lekua du euskarak. Gaitasun onekoak dira, eta askok badakite euskalkia. Horietako asko euskaldun zahartzat hartzen dituzte, eta horrek harro sentiarazten ditu. (Ortega eta beste, 2016: 175-178)

Dena den, azken kategoriakoak –berri-berria izateagatik, ziurrenik– oraindik ez dira gehienengoa, eta gizartean sustraituta dagoen dikotomia oraindik ere "osasuntsu" dago, zoritxarrez. Zorionez, baina, aurreko puntuaren hasieran aipatutako Hymesen ideia duela mende erdikoa da, eta, nolabait, ondo baino hobeto islatzen du duela gutxi arte erabat errotuta zegoen native / non-native dikotomia. Berriki egindago ikerketek, berriz, hiztunen komunitatearen definizioa zabaldu egiten dute, Morganek (2014), besteak beste:

Speech communities are groups that share values and attitudes about language use, varieties and practices. [...] Constant relocation, mass migration, transmigration, ever-evolving technology and globalization have transformed many societies and increases the need to provide more detailed descriptions and theories regarding the nature of speech community. (2013: 9)

Itxaropentsu egoteko arrazoiak eman ematen ditu definizioak. Euskal hiztunen komunitateak munduko besteek bezala zabaldu beharko du, momentu honetan parte hartu izan dutenak zein hizkuntza identitate ezberdinetako guztiak horren benetako parte ere izateko. Lehen pausuak, berez, eginak daude gurean, euskaldun kategoria

agertzearekin batera. Euskaldun berri kategoriatik saltoa eginda sortutako kategoria da, eta horrek erakusten du kategoriaz kategoria egitea posible dela.

### 2.2.5. Hitzun zaharren jarrerak

Hitzun zaharren jarrerak bietara azter daitezke: hitzun berriei galdetuta hitzun zaharren jarrera nola ikusten duten eta hitzun zaharrei zein jarrera duten galdetuta. Datuen eskasia dela eta, Ortegak eta bestek (2016) egindako ikerketaren zati solteetan oinarritu behar izan da.

Hitzun berriek zaharren harrera ona eta jarrera abegikorra aipatzen dute<sup>11</sup>. Hitzun zaharrak laguntzeko prest agertu ohi dira, eta hitzun berrien gabeziak hitzun horiek berek aipatu eta onartzen dituzte, eta ez, beraz, "adituek" (2016; 48-52).

Hitzun berrien motibazioak zerikusia izango al du hitzun zaharren jarrerekin? Aipatu behar da euskalduntze prozesuaren hasieran ikasle gehienak barne motibazio integratzaile eta identitarioak mugitzen zituela ("kanpo ez geratzeko"); egun, ordea, ohikoena kanpoko motibazio instrumentala da (hizkuntza eskakizunak horren islarik onena) (2016:53). Hura, hain justu, ikasteko oztopo izaten da, eta *euskara zaila dela* aurreiritzia indartu eta zabaltzen laguntzen du.

Kanpoko hitzun berriekiko jarrera edo, hobeto esanda, joera arriskutsua ere aipatu dute Ortegak eta bestek: kanpoko delatuta, zuzenean erdaraz egiteko joera nabarmena da, bestea hitzun berria den ala ez zalantzatan jarri gabe. (2016: 109). Jokabide arriskutsua etorkinak hitzunen komunitatean integratzeko eta euskaraz dakitenei motibazioa kentzeko. Nolanahi ere, hemengo hitzun berriei ere zuzentzeko joera berezia agertzen dute hitzun zaharrek. Izan ere, onartzen dute hitzun berrizat hartzen dituztenei batuaz bakarrik hitz egiten dietela. (2016: 156). Ez da, inondik inora ere, mesedegarri ezta lagungarria ere hitzun berriekiko, euskalkia ez erabiltzeak dakarren legitimitate falta kontuan hartuta. Etxeko euskaldunek, nolabait, barruan daramatena konpartitu nahi ez, eta elkarrizketa beste maila batera eramane ohi dute. Are harrigarriagoa da tokian tokiko hizkerari ematen dioten garrantzia kontuan hartuta.

---

<sup>11</sup> Testuinguru mesedegarrietan (euskaldunagoan) bizi diren hitzun berrien pertzepzioa da batez ere

Hiztun horiek esaten dutenez, euskalkia funtsezkoa da *hiztun berria* euskaldunen artean integratzeko.

### 2.2.6. Deitura-aldaketa, diskurtso-aldaketa?

Betiko dikotomiak, neurri handi batean, hiztun berrien inguruko diskurtso deslegitimitzailea eragin eta areagotu egin zuen. Horretaz konturatuta, diskurtso „ofizialak“, nolabait esatearren, aurre egin nahi izan zion, eta horren zantzuak agerikoak dira. Euskararen biziberritzean hiztun berriek duten garrantzia ikusita, horiek egindako ahaleginak goraiatzaren hasi, eta omenaldiak agertzen hasi ziren. Hona hemen hainbat adibide deigarri:

1. Korrikaren omenaldiak: 12. edizioa (euskaldun berriak, bideoan atzeritara agertzen da), 18. edizioa, euskara ikasleak (deitura aldaketa, zergatik?)
2. 2015eko Euskararen Eguna (Eusko Jaurlaritza, aldundi eta udalekin batera), euskaldun berriei omenaldia, *Euskaldun Berria Kalea* ekimenarekin batera. Egitasmoa udal bakoitzak euskaldun berriei kale edota gun bat eskaintzea da: *Euskaldun berriak gure hizkuntza berritzen duten euskaldunak dira, euskararen taupada dira, eta kalea beraiena da. Horregatik kalea eskaini nahi diegu* ([www.euskalberriakalea.eus](http://www.euskalberriakalea.eus)).
3. Donostiako *Lau Haizetara* monumentua, Antton Mendizabal eskultoreak egin, euskaldun berrien omenez (2006).
4. Jaurlaritzako *Euskaldun berri* aretoa (2015).

Ukaezina da ekimen horiek guztiak euskaldun berriak omentzeko egin zirela. Baina benetan horien mesederako? Hiztunon mesederako? Dikotomia agerian baino ez dute uzten, eta hirien paisaiaren zati direnez, denbora luzez egongo dira lehenaldia gogorarazten.

### 2.2.7. Eta saririk, bai?

Hiztun berriek, egindako ahaleginaren ondorioz, nahiz eta (hiztunen komunitatearen zatia ez izan) sariak jaso ohi dituzten, gehienetan izandako motibazioaren araberakoak. Ingurune oso euskaldunetan bizi direnek jendearekiko harremanak aipatzen dituzte, eta bertako kanpotarrek, euskaldunen munduan sartzea; horien ikaste prozesuaren motibazioak balio integratzailea ohi du. Gasteiz bezalako hirietan, ordea, hiztun berriek euskara ikasi izanak eman dien balio identitarioa azpimarratzen dute. (Ortega eta beste, 2016: 74) Murgilketaren bidez ikasitako gazteek euskal kultura, nortasuna eta identitatea aipatzen dute, testuinguru euskaldun zein erdaldunetakoek. (Ortega eta beste, 2016: 65-71)

Denak, halere, ez dira sariak. Testuinguru oztopatzaileetako hiztun berriek (askok motibazio instrumentalak eraginda) oso esperientzia gogorrak bizi izan dituzte. Hizkuntza-eskakizuna atera beharrak euskara ikastea esperientzia desatsegin bihurtu du, eta gorroto eta frustrazio-sentimenduak ere aipatzen dituzte hiztun berri horiek. Erabilera aukera garbi eskasek, zalantzarik gabe, areagotzen dituzte sentsazio negatibo horiek. (Ortega eta beste, 2016: 47). Hiztun edo ikasle horien kasu askotan, ez da lortu euskararekiko atxikimendua, guztiz kontrakoa baizik, nahiz eta egundoko ahalegina egin duten.

Aipatu sentimentu negatiboak gehienetan testuinguru oztopatzaileetan jaso dira, eta oso positiboak, euskaldunak %70 baino gehiago diren guneeetan<sup>12</sup>. Aldi berean, erabileraren azken datuei begira, bakarrik gune horietan areagotu da euskararen presentzia, Gipuzkoan batez ere. Agian, hausnarketa egin beharko litzateke ea euskarak emandako sariak eta hiztun zaharren jarrerak ikasteko eta euskara erabiltzeko momentuan eraginik ba ote duten. Ingurune horietan euskaldun zahar / euskaldun berri dikotomia indartuago dago besteetan baino? Sariak eraginik ba ote dute? Euskal hiztunen artean inon baino gaitasun maila hobea eta hiztun berrien kopuru handiena izanda, harritzekoa da datu horiekin batera erabilerak gora ez egitea.

---

<sup>12</sup> Aipagarria da Saezek esandakoa: “Euskal Herriko biztalaria osoaren % 70 inguru, ezagutza % 25 baino txikiagoa den eremuan bizi da. Erabilera % 3 ingurukoa da eremu horretan.

Bestelako hausnarketarik ere egin daiteke, nahiz eta ezohikoa izan: ibilbide eta esfortzu bera egin duen Hungariako bat eta euskaltegian ikasten ari den Gasteizko 42 urteko erizaina berdin ikusita al daude? Euskal gizarteak ikusteko modua aldatzen da hiztun berriaren jatorriaren arabera? Atzerriko hiztunak motibatuagoak eta "freskoago" daude bertakoak baino? Gogotsuago erabiltzen al dute hizkuntza? Bibliografia akademikoan horren inguruko daturik ez, beste inon, beraz, bilatu beharko. Baliteke lan honek galderak egitea erantzunak ematea baino, baina hori, aldi berean, ikerketan dagoen hutsunea erakutsi, eta betetzen hasiko litzateke.

### **3. Ikerketa enpirikoa**

#### **3.1. Helburuak eta corpora**

Ortegaren eta besteren lana izan da zati teorikoaren oinarri. Datuetan oinarritutako diskurtso zientifikoa da, kaleko jendeak, gizartearen zati handienak, alegia, ezagutzen ez duena, baina zer gertatzen da prentsan? Irudi bera al du ikerketaren berri ez duenak, hau da, gizartearen gehiengoak? Egun, hedabideek duten boterea ikusita, bertan agertzen dena egiatzat jo ohi da, eta pisu handia du gehiengoaren iritzia bideratzeko. Berebiziko garrantzia du, beraz, euskararen etorkizunari begira, gizartearen kontzientzia linguistikoak eragin handia izateagatik.

Zati hau egiteko prentsan agertu diren artikuluko kopuru esanguratsua aztertu, eta honako galdera hauei erantzuzko zaie:

1. Hiztun berriei dagokienez, atzerritarrak agertzen al dira?
2. Kanpokoei egindako elkarrizketak aintzat hartuta, posible al da hiztun zaharren jarrerak zeintzuk diren identifikatzea? Ba al dago alderik Ortegaren eta besteen lanean bertako hiztun berriekiko jarreraren artean?
3. Bibliografia zientifikoan dagoen hutsunea dela eta, posible al da elkarrizketan eta artikuluetan oinarrituta atzerriko euskal hiztun berrien profilararen lehen hurbilketa xumea egitea?



Hedabideetan agertu diren 12 elkarrizketa aztertu dira<sup>13</sup>. Ez dira, inondik inora ere, bertakoak ez diren hiztun berriak agertzen diren lagin bakarrak. Artikulu zein audio gehiagotan agertu badira ere, lanaren xedea lortzearen, elkarrizketak baino ez dira kontuan hartu, horiek, zuzeneko galdetegirik egin gabe, hiztun zaharren jarrerak nahiz kanpoko hiztun berrien bereizgarriak zeintzuk diren ondorioztatzeko bide bakarra baitira. Elkarrizketak mota anitzekoak dira: idatziak (6, gehienak Ikasbil weborritik hartuak) zein ikus-entzutezkoak (6: 5 Euskadi Irratia-koak, 1, ETB1-ekoa).

Lehenik, egindako galderetan zein iruzkinetan oinarrituta, hiztun zaharrek duten jakin-minia eta interesak zeintzuk diren agerian utziko da. Haiek, bidenabar, haien jarrerak zeintzuk izan daitezkeen erakusteko lagungarriak izango dira. Galderen erantzunek, berriz, kanpoko hiztun berrien profila marraztuko dute.

Nolanahi ere, galderetan oinarritzea ez da, zalantzarik gabe, metodorik onena. Izan ere, elkarrizketa, neurri handi batean, hizketaldi natural eta bat-batekoa izanda, elkarrizketatuak esatariari aurrea hartu, eta hark galdera egin baino lehen, aurretik erantzun ahal dio. Egiteke dauden balizko galdera asko egon daitezke, beraz. Hori horrela izanda, elkarrizketa guztiak, galderen kopurua ikusita, ezin, nahitaez, modu berean ordezkaturik egon. Horretaz aparte, gehienek bai, baina elkarrizketa guztiek ez dute euskara hizpide bakarra izan. Honako hau ere aintzat hartzekoa: galderen “autoreak” kazetariak dira, eta horiek, jakina, ez dute euskaldunen komunitate osoa islatzerik. Horregatik, agian, berebiziko garrantzia dute 11. elkarrizketan entzuleek egindako galderek nahiz iruzkinak: kaleko jendearen iritzia da. Paragrafo honetan aipatu arazo zein zehaztasun faltekin agerian utzi besterik ez dute egiten lan hau lehen hurbilketa xumea baino ez dela.

## **3. 2. Emaidak**

### **3.2.1 Hiztun zaharren jarrerak**

Aztertutako elkarrizketa gehienetan, bai ildoak bai galdera motak, salbuespenak salbuespen, antzekoak dira oso. Horrek, bidenabar, ondorioak ateratzen uzten ditu.

---

<sup>13</sup> Aipuen erreferentziak emateko, honako laburdura hauek erabiliko dira: E1 (lehen elkarrizketa), E2, E3, E4, E5, E6, E7, E8, E9, E10, E11 eta E12. Elkarrizketen zerrenda, ikus. 1. eranskina

Logikoa den legez, hasierako galderak kanpoko hiztun berriak Euskal Herrira etortzeko arrazoiaren ingurukoak dira:

- (E1) Zerk ekarri zintuen Poloniatik Euskal Herrira?
- (E2) Nola iristen da alemaniar bat Oiartzun bezalako herri batera?
- (E5) Zer egiten du greziar batek Euskal Herrian?
- (E10) Zer dela eta etorri zinen Euskal Herrira?
- (E12) Zer dela eta etorri zinen Ingalaterratik Euskal Herrira?

Nolabaiteko harridura sumatzen zaie euskaldunei, eta jakin nahi dute zer duen Euskal Herriak, jaioterria utzi, eta bizitzeko (gehienek kasuan) hona etortzeko. Agian ez zekiten hemengo xarma horrelako erabakiak harrarazteko gai denik. Ziur ere ez daude ea munduak Euskal Herriaren eta euskararen berri duen, eta horretarako elkarrizketatuak informazio iturria ezin hobea dira. Hortaz, Euskal Herrira etorri aurretik herriari zein euskarari buruzkoak agertu dira:

- (E1) Hona etorri aurretik ezagutzen al zenuen Euskal Herria?
- (E3) Euskararen lehen albistea, noiz eta non izan zenuen?
- (E6) Zer aurreikusten zenuen [Euskal Herrira etorri aurretik]?
- (E7) Nondik dator lehen harremana euskararekin?
- (E11) Ikasketak egiten hasi aurretik, bazenekien zerbait Euskal Herriari buruz?

Galdera horiek bide ematen dute euskaldunak ezagun dituzten haiei buruzko aurreiritziak atzerrian ere indarrean dauden jakiteko.

Behin etorrira, jakin behar aurreiritziak bete egin diren:

- (E5) Zer moduz hartu zaituzte euskal herritarrek?
- (E5) Euskal Herriko bizimodutik zer da gehien harritu zaituena?
- (E9) Nola sentitzen zara Euskal Herrian?
- (E11) Euskaldunak gustatu zitzaizkizun?
- (E11) Esaiguzu, bihotzez, euskaldunak hain hotzak al gara?
- (E11) Nola ikusten dituzu herritarrak politikoen aurrean?

Nolanahi ere, gauza bat da hona etortzea eta beste bat, hemengo hizkuntza ikastea erabakitzea, batak ez baitakar, nahitaez eta beti, bestea; Euskal Herrian bizi,

euskaraz hitz egin ez, euskal gizartearen gehiengoak egiten duen bezala. Kanpoko batek, beraz, zergatik erabaki du kontrakoa egitea? Luzez zapalduta eta gutxietsita egon den hizkuntzak nolatan pizten du interesa? Hauxe (Ikas-prozesua hasteko arrazoia edo motibazioa) da, hain justu, hurrengo interesgunea:

- (E3) Zergatik hasi zinen ikasten?
- (E4) Zertarako ikasi nahi zenuen euskara?
- (E5) Zerk bultzatu zintuen euskara ikastera?
- (E9) Zergatik harrapatu zaitu euskarak?
- (E11) Zergatik aukeratu zenuen euskara?

Aski entzunda dute euskaldunak mintzatzen diren hizkuntza zaila dela eta haren ikas-prozesua, jakina, aldapatsua dela. Hainbestetan aditu izanak iritzi hori sinestarazi ere egin die. Horren isla, egindako honako galdera hauek:

- (E3) Erraza al da zuretzat? Dohain berezia duzu ala berezkoa duzue etxean?
- (E5) Zaila egin al zaizu euskara ikastea?
- (E10) Esango al zenuke euskara berez zailagoa dela ala baldintza edo testuinguru diferenteek eragindako ikas-prozesu desberdinak diren neurrian nekezago ikasten direla?
- (E11) Esaten duten bezain zaila da?

Horrenbestez, deigarri oso egiten zaie ustez hain zaila den hizkuntza, hemengo askok trakets dakitena, kanpoko batek hain ondo barneratzea:

- (E1) Harrigarria da benetan zein ondo hitz egiten duzun euskara!

Jakin nahi dute, beraz, non eta nola ikasi duten:

- (E1) Euskal Herriko zein lekutara etorri zinen euskara ikastera?
- (E1) Denbora gutxi behar izan duzu euskara ikasteko?
- (E2) Nola ikasi duzu euskara?
- (E2) Zeintzuk izan ziren zure tresnak euskara ikasteko?
- (E3) Noiz hasi zinen ikasten?
- (E4) Zer da ikasten errazena gertatu zaizuna? Zergatik?
- (E4) Gramatika arauak zer dira zuretzat, lagungarriak, oztopo, gehiegi dira agian?
- (E4) Zein da, zure ustez, ikasteko modu hobea, bakarka ala taldean, ala biak batera?
- (E5) Nola lortu duzu euskara maila egokia izatea?
- (E6) Noiz hasi zinen euskara-eskolak jasotzen?

- (E7) Nola ikasi duzu?
- (E8) Nola ikasi duzu hain ongi?
- (E9) Euskaltegian ikasi al duzu?
- (E10) Nola egin zenien aurre bi hizkuntzei [euskarari eta gaztelaniari]?
- (E12) Zelakoa izan zen zure ikaste prozesua?

Baita ea ikaste prozesu honek, gaitasunaz gain, bestelako saririk ere eman al dien:

- (E1) Zer eman dizu zuri euskarak?
- (E7) Zer eman dizu euskarak?

Agerian denez, interes handikoa da, ia elkarrizketa guztietan agertzeagatik eta batzuetan horri buruzko bizpahiru galdera egiteagatik. Logikoa da, bestalde; izan ere, kontuan hartu behar da elkarrizketa gehien hartzailleak ikasle diren hiztun berriak direla, eta bertan entzundako "trikimailuek" agian haien ikaste prozesua erraztu edota arintzea dute.

Gaitasunak gaitasun, erabilera da hizkuntzarekiko atxikimendua ondoen islatzen duena. Euskararen kasuan bereziki giltzarri dela jakitun, horri buruzko hainbat galdera agertu dira:

- (E4) Une honetan non erabiltzen duzu euskara, non hitz egiten duzu?
- (E7) Euskaraz bizi zara?
- (E10) Zure familian nola eratzen duzue komunikazio-sarea: euskaraz, gaztelaniaz, alemanez edo ingelesez?

Hizkuntza eta herriaren inguruko galderak euskaldunen interesak zeintzuk diren erakusteko parada izan dira. Baina hizkuntza bera alde batera utzita, hurrengo hainbat paragrafoetako iruzkinek haien jarrera zein den ulertzen lagunduko dute.

Hizkuntza-identitatei ere heltzen diete hiztun zaharrek. Ez, halere, zer / nor sentitzen diren galdetuz, baizik eta baieztapen sendoak eginez<sup>14</sup>:

---

<sup>14</sup> Salbuespen moduan, galderarik, berez, egon egon da, euskaldunen beren zalantza argitzeko (eta testuinguru sozio-historiko-kulturalak kutsatutako norbaiten erantzuna horretan langungarri?):  
(E11) Euskaldunak akklaratu ezinik gabiltza; zer da, zuretzat, euskalduna?

(E5) Atzerritarra izanagatik, euskalduna zara. Zer iruditzen zaizu hori?

(E8) Bueno, zu, Tarana, ama-hizkuntza azeria duzu, euskaldun berria zara, euskalduna zara, bete-beteko euskalduna

(E12) Elorri bizi zara. Dagoeneko, hemengo ere bazara

Esatariek zalantzarik ez izatea hiztunen komunitatearen balio edo diskurtso integratzailearen froga da.

Azkenik, eta, kasualitatez, elkarrizketa gehienetan ere bukaera aldera egonda, euskaldunek kanpoko hiztun berriekiko duten jarrera honela erakutsi dute:

(E1) Harrigarria da benetan zein ondo hitz egiten duzun euskaraz! (...) Zorionak egindako ahaleginagatik, zure jarrera zein izaera eredugarriak dira

(E2) Gaur egun primeran hitz egiten duzu euskaraz (...) Harrigarria da guretzako ikustea nola hizkuntza ikasi berri duen norbaitek bertsoak egiteko gaitasuna ere eduki dezakeen (...) Eskerrik asko, gure miresentzen guztiarekin, eta bukatzeko zerbait esango zenioke euskaraz ikasten ausartzen ez denari?

(E5) Zer iruditzen zaizu atzerritarrek euskaraz ikastea eta euskal herritar askok pauso hori ez ematea?

(E6) Eskertu al dute ikasleek hemengo ez den irakasle bat izatea?

(E8) Badakit kasik egunero zoriontzan zaituela norbaitek euskaraz ikasi duzulako eta zu harritu egiten zara, ezta?

(E8) Tarana Karim, eskerrik asko, guri bisita egiteagatik, benetan gozamina eta ohorea izan da.

(E11) Etorri zara, eta ez dakizu zenbat eskertzen dizugun

Aipatutakoak, esatariek eginak, baina elkarrizketaren erdian mezua bidali duten bi herritarren iruzkinak ere badaude:

(E11) (Entzule batek esanda) Gero euskara ikastea zaila omen da zorionak, benetan. Beste behin ere euskal herritar asko lotsarazteko balio dute zure hitzek. Muxu handi bat, eta segi horrelaxe, benetan eredugarria zara

(E11) (Beste batek) Eskerrak eman nizkion neska gazte horri hain ondo hartzeagatik gure hizkuntza eta gure kultura. Hemengo batzuk lotsatu beharko lirakeke.

Nolabaiteko miresentzena eta esker on argia sumatu ahal dira hiztun zaharrek egindako adierazpenetan. Eredugarritzat jo ere jotzen dituzte.

### 3.2.2. Kanpoko hiztun berrien profila

Askotarikoak dira elkarrizketatutako kanpoko euskal hiztun berriak Euskal Herrira etorritako zituzten arrazoiak:

- (E1) Euskara bera (...) ikasteko grina sortu zitzaidan
- (E4) Hona etorri nintzen zeren beti pentsatu izan dut leku ederra zela, kultura berezia izan behar zuela
- (E5) Duela hamaika urte, Mexikoko hegoaldean izan nintzen, herri indigenetan, eta han, euskal herritar ugari ezagutu nuen. Lehen aldiz, orduan izan nuen euskaldunen berri eta euren begietatik ezagutu nuen Euskal Herria. Mosaiko moduko irudia egin nuen, jaiak baita minak ere biltzen zituen. Leku berezia iruditu zitzaidan Euskal Herria, eta horri buruz nire ikuspegia sortu nahi nuen. Bertara etorri nintzen.
- (E6) Nire betiko ametsa zen Euskal Herria ezagutzea(...)Dena amestutakoa baino politagoa zen (etorri zenean)
- (E7) Ikasketak bukatuta, lanpostua eskaini zidaten Euskal Herrian

Kasu gehienetan, ez du ematen, behintzat, kasualitatea izan zenik, oso hautu kontzientea baino. Atzerrian Euskal Herriaren berri izan baino lehen, onartzen dute haien ezagutza oso eskasa zela:

- (E1) Topiko batzuk ezagutzen nituen, esaten ziguten euskara gaztelaren dialektoa zela.
- (E5) Ez nekien ezer Euskal Herriaren inguruan (...) Banekien hemengo gizartea gatazkatsua dela, baina (...) Borroka handiagotan sartu izan naiz hemen gastronomiaz hitz egiten, politikaz hitz egiten baino.
- (E11) Oso gutxi nekien

Bertako hizkuntza ikasteko ere hainbat arrazoi aipatu dituzte. Gehienek herria eta hizkuntza osotasun banaezintzat dituzte, eta hemen bizitzeko nahitaez behar zuten euskara:

- (E5) Euskal Herria ezagutzeko tresna bat da (...) Euskal Herria ulertzeko. Ez da posible gizarte batean bertako hizkuntza jakin gabe bizitzea
- (E4) Hemengo hizkuntza bultzatzeko, komunikatzeko
- (E7) Bi hizkuntza zeudela konturatuta, euskara politagoa iruditu zitzaion, eta erakargarria zitzaion euskaraz bizitzea (...) Hemen bizitzekotan hizkuntza jakin behar da
- (E10) Banekien bolada baterako hemen biziko nintzela eta hemengo hizkuntza ere ikasi nahi nuela.

Beste batzuek, euskararen berezitasuna izan dute amu:

(E1) (E11) Jakin-miniagatik

(E3) Interesgarri iruditu zitzaidan, egitura bitxia duelako eta hizkuntza irla delako. Euskararen egitura gustatu zitzaidan, ergatiboa, aditzak...

Arrazoi berezirik ere egon badago:

(E2) Kasualitate hutsa izan zen. Tefefonoan euskara exotikoa zenez, jarrita nuen, eta hain ezberdina zenez, nire interesa piztu zuen.

Azken hori kenduta, nabarmena da oso gainerakoek azpimarratu dute barneko apustua izan dela. Bakar batek ere ez du kanpoko motibazioa aipatu. Are gehiago, balio instrumentalaren nolabaiteko aurkako joera sumatzen zaie:

(E5) Ez dut EGA titulua lortzea bilatzen (...) Min ematen dit jendearen axolagabekeriak, eta hizkuntza lanpostu jakin bat lortzeko ikasten dutela ikusteak

(E6) Gaitasuna nahi dut, ez EGA

Atzeritarrek hizkuntzaren bitartez euskaldunen munduan murgiltzeko gogoia agerian uzten dute. Bertako hiztun berri askok, hizkuntzaren gaitasun (=hizkuntza eskakizuna) ona edukiagatik, ez dute euskararen aldeko – kontrako ez esatearren – jarrerarik.

Ikas-prozesuari dagokionez, zenbait kasutan euskal erakundeen papera azpimarratzekoa da:

(E1) (E11) Bizkaiko Foru Aldundiaren beken bitartez, Polonian unibertistatean ikasten hasi naiz

(E6) Euskara Munduan izeneko egitasmoak lagunduta

Ikasteko metodoak direla eta, ez da alde handirik ikusi bertako eta atzerriko hiztun berrien artean. Izan ere, euskaltegia, barnetegia eta bakarka ikastea dira aipatuenak:

(E2) Liburuxka erosita, gramatika liburua, hiztegia eta interneteko baliabideak(...) kantuek beti asko laguntzen dute

(E4) Taldeka zein bakarka, hitz eginez bakarrik ikasten da hizkuntza bat

(E7) Euskara ikastea mendira igotzea bezalakoa da (...) Hanka sartzeak berdin dit

(E9) Lanean, euskaltegian eta semearekin

(E10) Orduan, HABEko euskaltegian ikastaro trinko horietako bat egiten hasi nintzen. Alemanok burugorrrak garela esaten denez, nire kabuz ere jarraitu nuen arratsaldetan tabernetan, kalean. nekien apur hori aplikatzen. Eta horrela pausoz pauso, pixkanaka-pixkanaka hasi nintzen ikasten

(E11) Barnetegia, euskaltegia, Euskal Etxea

Bakar bat izanda ere, baina badago metodo tradizionaletako bat, barnetegia, alegia, ondo ikusten ez duenik:

(E8) Gainera nago barnetegiaren kontra (...). Euskal Herrian bizi eta euskara ikasteko barnetegira joan? Kalean daukazu, ez? Leku guztietan daukazu barnetegia, nire ustez.

Halere, ezin esan gabe utzi testuinguru mesedegarrian bizi den hiztun berria dela, kalean ikasteko aukera izan duena. Salbuespentzat hartu beharko, hortaz.

Kanpotarrek erabilitako metodoak, beraz, tradizionalak dira, baina ez, inondik inora ere, ikaste prozesuaz duten pertzepzioa: zabaldu baino zabalduago dagoen “zaila den” mitoaren erabat kontrakoa:

(E2)Beti entzuten da euskara zaila dela, baina berez ez da egia (...) ze euskara oso erregularra da, eta oso logikoa, eta horregatik esango nuke errazagoa dela ikasteko, ingelesa edo frantsesa eso horrelako hizkuntza bat baino

(E3) Erraza, interesatzen zaiona egiten duelako.

(E5) Euskara ikasteko zailtasuna mitoa da niretzat (...) Jendeak beti espero du euskara ikastea oso zaila dela esango dudala, baina ez zen horrela izan (...) Ez dago hizkuntza zailik eta errazik, zerbait komunikatzeko gogoia da garrantzitsuena.

(E10) Nire ustez zailtasuna neurri handi batean mito bat da; mito bat eta aitzakia bat ikasi nahi ez duten pertsona askorentzat. Hala eta guztiz ere, puntu batean egon ninteke ados zailtasunaren tesi horrekin. Zergatik? Hasieran euskara ezagutzen ez duenak, ikasten hasten denean, ez daukalako heldulekurik. (...). Hau da, nahiz eta ezagutu ingelesa, alemana edota gainontzeko hizkuntza asko ezagutu, ni gogoratzen naiz (...) ez nekien non hasten zen hitz bat eta non bukatzen zen hurrengoa, eta hemengo jendeak hori jada entzunda zeukan.

(E12) Euskara hizkuntza matematikoa da, oso logikoa

Bistan denez, alde ederra dago kanpoko eta bertakoen pertzepzioen artean. Harrigarria da batzuei aldapa gora eta besteei aldapa behera egitea. Arrazoi nork duen



zaila dela esatea, baina gizaki guztiok hizkuntzak ikasteko gaitasun bera daukagula kontuan hartuta, aitzakia den hipotesiak indartsua dirudi.

Ikasi ez ezik, aritu ere aritzen dira kanpoko hiztun berriak; nonahi eta noiznahi. Hizkuntza-kontzientzia handiko hiztunak direla ematen du, erabilera datuak hobetzen dituzten horietakoak:

(E1) Euskaraz bizi naiz

(E4) Etxean, kalean, lanean

(E5) Kalean euskaraz hitz egiten saiatzen naiz, askotan erraza ez den arren

(E7) Euskaraz bizi nahi dut. (...) Bestalde, onartezina iruditzen zait txisteak beti erdaraz kontatzea

(E8) Lehenbizi egiten dut beti euskaraz.

(E8) [Euskararen Egunari buruz] bizi naizen herriaren hizkuntza da euskara eta uste dut hemengo euskaldunen ardurako eguna da, ez? pixka bat ardura hartzeko beren hizkuntza zaintzeko. Ni, adibidez, kanpotar bezala, erabiltzen dut, baina euskaldunaren ardura da bere hizkuntza zaintzeko, hizkuntzarik gabe ez dago herririk, hizkuntza zaindu behar da

Komunikazioa ez da ikasteko ahaleginaren eta jaioterria uztearen truke jaso duten sari bakarria. Bestelakorik ere badago:

(E1) Ez dut hitz egokirik hori behar bezala adierazteko: euskarak asko eman dit eta ematen dit

(E3) Euskarak sekulako pozak eman dizkit

(E5) Egun batez, Ordizian, mutil gazte batek euskara ikasteagatik eskerrak eman zizkidan eta hunkitu egin ninduen. Euskaldun berrientzat oso garrantzitsua da euskaldun zaharren babes.

(E6) Gerora konturatzen zara zenbat irabazten duzun euskara jakinda. Nik lagun pila bat irabazi nituen, Euskal Herrian bizitzeko aukera ere irabazi nuen.

Aipatu sariak oro bigarren mailakoak direla ematen du, garrantzitsuaren parean ipintzen baditugu: (hizkuntza) identitate berria irabaztea, greziar honek dioen bezala:

(E5) Oso kontzeptu berezia da euskalduna. Atzerritarrek euskaldun izateko aukera hori badugu. Ulertezina da hemengoek abagune hori ez erabiltzea.

Bertako identitatea izanda, oztoporik ez integratua sentitzeko:

(E6) Integratua sentitzen naiz eta ez dut esaten argentinarra naizela, euskaraz hitz egiten dut eta kito.

(E9) Euskal Herria oso eskuzabala izan da nirekin; bertakoa sentitzen naiz, ez naiz atzerritara sentitzen

- (E9) Etxekoa sentitzen naiz  
(E11) Etxean bezala sentitzen naiz

Halere, etiketen eta dikotomia zaharrak ezartzen dituen kategorien kontrakoak diren zantzuak agerian daude:

- (E7) Kanpotik ikusita, nahiz eta hemengoak izan, euskaldun berriak beldur dira, euskera zaharreko mundura iritsi, hori da betiko eztabaida, euskaldun berri, euskaldun zaharra, baina niretzat muga hori ez da existitzen. Euskaldunak gara, eta kitto.  
(E12) Galdera kurioa da nongoa zareneko hori. Zer gura du esan horrek? Pertsona sailkatu gura du. Zer da euskalduna? Batzuk esango dute hemen bizi direnak direla, beste batzuek euskaraz berba egiten dutenak... Nire ustez, duela 100 urte oso erraza zen euskalduna zer zen esatea, baina gaur egun gaitza da. Galdetzen didatenean, zera esaten dut: Elorrikoa, baina baita Ingalaterrakoa ere.

Hiztun zaharren jarrerak direla eta, atzerritarrek diote bertakoak harritzen dituela haiek euskara ikasteak, azkar ikasi izanak ere:

- (E5) Askotan esaten didate oso azkarra naizelako ikasi dudala horren denbora gutxian, baina ez da hori gakoa

Harridura, batetik, eta esker ona, bestetik, adibide honek ondo baino hobeto islatzen duen bezala:

- (E5)Oso ongi. Egun batez, Ordizian, mutil gazte batek euskara ikasteagatik eskerrak eman zizkidan eta hunkitu egin ninduen. Euskaldun berrientzat oso garrantzitsua da euskaldun zaharren babesa.

Nolanahi ere, paradoxarik ere egon badago: kanpoko hiztun berriak hiztun zaharren harridurak harritzen ditu, haiek normaltzat jotzen dutelako bertako hizkuntza ikasi behar izatea:

- (E8) Hemen 12 urte daramazkit eta hori da normala kanpotar bat etorri eta hemengo hizkuntza ikasi, ez? (...) harritzen zait hori, jendeak esateko zoriontzen naute eta niretzat zerbait normala da.

Harriarazteaz gain, beste eginkizun bat ere badute kanpotarrek, hemengoentzat eredu izatea, alegia. Horien adibidea motibagarria izan daiteke euskara ikastea aldapatsu eta ezinezko ikusten dutenentzat:

(E6) AEKn lanean ari zen mutil bat ezagutzen nuen eta berak esaten zidan irakasle aritu behar nuela eta niri hasieran lotsa ematen zidanez, ezezkoa eman nion, baina tematu egin zen. Neu irakasle izatea interesgarria zela esaten zidan, motibagarria izan zitekeela ikasleentzat, eredugarri. Eta hala da, ikasleek eurek esana "zuk ikasi baduzu, geuk ere ikasi ahal izango dugu Badakigu zuk behintzat egin duzula, beraz, guk ere posible dugu, lortuko dugu euskaraz hitz egitea".

Bidenabar, batek aipatzen du bertako eta kanpoko hiztun berriak ez direla berdin tratatuak, eta kanpotarrek nolabaiteko pribilegioa dutela hemengoan aldean:

(E5) Bestalde, atzerritarra izanda inork ez zuen pentsatzen euskara ikasiko nuenik eta ez nuen batere presiorik. Akats guztiak eginda ere, inork ez zidan ezer esaten. Nire adinarekin hemengo norbait euskara ikasten hasten bada, jendea zorrotzagoa izan ohi da berarekin. Nik hemen egin nezakeen ekarpen bakarra euskara ikastea zen, jendeak ikus dezan ez dela ezinezkoa.

Baliteke horregatik hiztun honek esatea berdin zaiola akatsak egitea. (Eroriz ikasten da ibiltzen!). Hiztun zaharrek hain zorrotzak ez izateak ikasteko metodorik onena erabiltzen uzten dio:

(E7) Hanka sartzeak berdin dit.

Kexatu ere egiten dira, dena den, kanpotarrak. Bertako hiztun berri batzuek diote, gorago aipatu bezala, zaharrek batuaz hitz egiten dietela. Nola egiten diete kanpoko euskaldunei horiek euskaraz eginda? Euskalkian? Batuan? Ez batean, ez bestean:

(E8) Euskara ikasterakoan lehenengo hitzak, lehenengo esaldiak esateko, eta joaten zara hori ez, pixka bat balorea hartu eta atrebitu praktikatzeko eta hori, beti erdaraz. Euskara... Erdaraz, eta hori kostatu zitzaidan hasieran.

Baliteke kexa gehiago ere edukitzea, baina horri buruz berariaz galdetu ez dietenez, ez dituzte aipatu.

#### 4. Ondorioak

Lan honen helburua izan da hiztun zaharrek bertako eta atzerriko hiztun berriekiko dituzten jarrerak aztertzea. Atzerriko hiztunei dagokienez, ikerketan dagoen hutsunea sumatu da, baina hedabideetan kanpoko hiztun berrien inguruko lekukotasun zenbait aurkitu eta aztertu dira. Lanaren xedea zein den aintzat hartuta (hiztun zaharren jarrerak bertako eta kanpoko hiztun berriekiko), elkarrizketak baino ez dira aztertu. Lehen ondorioa da, berez, gaia ikertuta ez badago ere, atzerriko hiztun berriek badutela presentzia euskarazko komunikabideetan. Ez da kuantitatiboki aztertu bertako hiztun berrien parean kanpokoei ehuneko zenbat eskaintzen zaien, baina egon badaude, eta horiek aurkitzea ez da, behintzat, zailtasun handikoa izan. Are gehiago, batzuetan kontrakoa erabat, esaterako, EUSKALDUN BERRIAK leloa duen 12. Korrikari buruzko bideoan Hego Amerikarra dugu guri irribarretsu begira.

Zati teorikoan aurkeztu den bertako hiztun berrien inguruko gazi-gozaok (Ortega eta beste, 2016) kanpotarrenekin alderatuta, hainbat ezberdintasun aurkitu dira. Lehenik, sustraituta dagoen dikotomiaren arrastorik ez da aurkitu atzerritarren kasuan. Aitzitik, (hizkuntza) identitateari dagokionez, erabat integratuta sentitzen dira, inolako etiketen kontrakoak, gainera. Euskalduntzat jo ere jotzen dituzte hiztun zaharrek, elkarrizketetako hainbat adibidetan ikusi den bezala.

Hizkuntzarekiko oso atxikimendu maila altua dute, bertako kulturen interes handikoak dira, euskaraz bizitzen saiatzen diren horietakoak. Ikaste prozesua, gehienetan, sufritu gabe pasatu dute —euskara oso logikoa baita!—, hitz egitea metodo nagusi edukita. Hitz egitea, hanka sartuta ere, baina, haien esanetan, hiztunek barkatzen dizkietenez hutsak, arazorik ez. “Zerbait falta zaidan” diskurtsoaren (Ortega eta beste, 2016) arrastorik, ere ez. Ikaste prozesuaren abiadurak motibazioarekin izan al du zerikusia. Barne motibaziodunak dira aztertutako hiztun guztiak, euskaldunen partetik egindako ahaleginagatik sarituak izan direnak, gainera. Hori, bidenabar, baliteke duten atxikimenduan eta erabilerarekin duten erabateko konpromisoan islatuta egotea. Ez al da, hain justu, bertako milaka hiztun berriri falta zaiena? Gaitasuna izanda erabilerarako saltoa ematea? Zergatik ez dute egiten? Atzerriko hiztun berriek jasotzen duten bezalako saririk ez jasotzeagatik?

Baina zergatik sari ezberdina jasotzen dute batzuek eta besteek? Baliteke irlandararen hiztunen kasuan Walshek (2015) aipatutako ingurunearen zamak horrekin zerikusia izatea. Euskaldun ugariri ez zieten inoiz galdetu ea erdara ikasi nahi zuten. Normaltzat joko dute orain, beraz, bertako erdaldun elebkarrek euskara ikastea, eta ez dute meritu moduan ikusiko. Duten jarrerak ez ditu bertakoak kanpokoak beste motibatzen, eta, ondorioz, erabilerak burua altxatu ezinik jarraitzen du. Gurrpil zoroa.

Kanpoko euskal hiztun berriek erakutsitako atxikimenduagatik eta konpromisoagatik esker ona jasotzen dute. Eredugarritzat dituzte hiztun zaharrek. Norentzat eredu, baina? Bertako hiztun berrientzat? Euskaraz bizi ez diren hiztun zaharrentzat? Zabalik geratzen diren eta interesa pizten duten galderak dira.

Ezin ukatu kanpoko euskal hiztun berrien kopurua bertakoekin erkatuta huskeria dela. Baina marmeladak du axola, ez poteak. Gutxi izanda ere, horien azterketa adierazgarria izan daiteke oso. Izan ere, ikusi da badagoela Euskararen Herria etxeko sentitzen den hiztun berrien taldea. “Zerbaitek” etxeko sentiarazten du, eta agian horixe da gakoa. Ondorioa: posible izan bada euskaraz bizi nahi duten eta deslegitimo sentitzen ez diren euskal hiztun berriak “irabaztea”.

Nolanahi ere, ateratako ondorioak aztertutako elkarrizketetan eta egilearen eskarmentuan baino ez daude oinarrituta. Lehen hurbilketa xumea baino ez da izan. Egiatzatu edota gezurtatzeko, azterketa sakonagoa egin beharko litzateke, galdetegi sorta egokiak prestatuta eta bestelako metodología batzuk rehabilita (adibidez, eztabaida-taldeak, Ortega eta besteren (2016) lanean bezala). Hemen ateratako ondorioek eta galdera berriek ez dute, jakina, euskararen erabileraren arazoa konponduko, baina ikerketari kutsu berria emago baliote, ongi etorriak!

## 5. Erreferentzia bibliografikoak


- Baztarrika, P. (2015). Euskaldun berriak: agur eta ohore. *El País*. In:  
[http://ccaa.elpais.com/ccaa/2015/12/02/paisvasco/1449070663\\_277652.html](http://ccaa.elpais.com/ccaa/2015/12/02/paisvasco/1449070663_277652.html),  
2017/04/19an azkenengoz ikusia
- Bucholtz, M. (2003). Sociolinguistic Nostalgia and the Authentication of Identity.  
*Journal of Sociolinguistics*, 7 (3): 298-416.
- Costa, J. (2015). New speakers, new language: on being a legitimate speaker of a  
minority language in Provence, *IJSL* 2015; 231: 127–145
- Coyos, J-B. (2011). Eüskararen bi dikotomia. *Euskera*: 56, 1-2. 17-36
- Egia, L. (2016). In: <https://uriola.eus/bilbo/1438868179060>, azkenengoz ikusia:  
2017/04/20
- Eusko Jaurlaritzaren IVAP (2010). *Soziolinguistika Hiztegia - Euskal Soziolinguistikaren  
eremuan erabiltzeko*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu  
Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzaren (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskal Herria, Euskal  
Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Iparralde*. Vitoria-Gasteiz: Eusko  
Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- Jaffe, A. (2015). Defining the new speaker: theoretical perspectives and learner  
trajectories, *IJSL*; 231: 21 – 44
- Kintana, X. (1980). *Hiztegia 80*. Bilbao: Elkar
- Kramsh, C. (2012). *Authenticity and Legitimacy in Multilingual Second Acquisition* In:  
<https://www.youtube.com/watch?v=VHxpc2PoE> , azkenengoz ikusia:  
2017/04/20
- Maisha, MC. (2016) In: <http://www.eitb.eus/es/television/programas/sin-ir-mas-lejos/videos/detalle/3682376/video-maisha-mc-prefiero-euskaldun-20-euskaldun-berri/>, azkenengoz ikusia: 2017/04/20
- Morgan, M. (2014). *Speech Communities*. Massachusetts: Harvard University
- O'Rourke, B. eta Pujolar, J. eta Ramallo, F. (2015). New Speakers of Minority  
Languages: The Challenging Opportunity. *International Journal of the  
Sociology of Language*, 231: 1-20.
- Ortega, A.; Amorrortu, E.; Goirigolzarri, J.; Urla, J.; Uranga, B., (2016) *Euskal hiztun  
berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea

- Puigdevall, M. (2014). New Speakers of Minority Languages: Belonging and Legitimacy, *Digithum*, 16
- Rodríguez, Tx. (2016). In: <http://www.eitb.eus/eu/irratia/euskadi-irratia/programak/hirigorrian/audioak/osoak/3770730/hiri-gorrian-euskaldun-20-transeuskaldunak-euskadi-irratia/>, azkenengoz ikusia: 2017/04/20
- Sarasola, I. (2006) *Euskal Hiztegia*. Donostia: Elkar
- Saenz, P. (2016) Goldean In <http://patxisaez.eus/>, azkenengoz ikusia: 2017/04/28
- Walsh, J. (2013). The surprising people speaking up for Irish. *Irish Examiner*, In: <http://www.irishexaminer.com/lifestyle/features/the-surprising-people-speaking-up-for-irish-253864.html>

## 6. Eranskinak

### 1. Eranskina


#### Biztanle atzerritarren bilakaera EAE-n



Iturria: Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia

### 2. Eranskina

#### Euskaldun zaharren, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien bilakaera adinaren arabera. EAE, 1991-2011





### 3. Eranskina

#### Erabilitako elkarrizketak:

E1: [Marta, poloniarra](#)

E2: [Sylvie, alemaniarra](#)

E3: [Hana, finlandiarra](#)

E4: [Tytti, finlandiarra](#)

E5: [Areti, greziarra](#)

E6: [Maite, argentinarra](#)

E7: [Barry, irlandarra](#)

E8: [Tarana, azerbaijandarra](#)

E9: [Tanya, kolonbiarra](#)

E10: [Ludger, alemaniarra](#)

E11: [Kasia, poloniarra](#)